



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2008-02-28**

VIURTEA 1.373.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Gobernu batzorde berria osatu dute EAJ, EA, PSE-EE eta EB-Aralarrek

**IBARRA** Aurreko EAren zinegotzien dimisioaren ondoren, Udalbatzaren ohiko bilkuran hartu zuten erabakia

**ORDAINSARIA** Romeo alkatearen soldata %39a igotzeko erabakia hartu zuten erdara hutsean garatu zen bilkuran 6



I. TERRADILLOS

**GEMMA ZELAIA** BITARTEKOTZA ZERBITZUREN ARDURADUNA

«Ikaskuntza aukerak bideratu eta orientazioa eskaintzea da gure helburu nagusia»

**TOLOSA** Tolosaldea GM-LH Institutuan dago Tolosaldeko Bitartekotza zerbitzua 2006ko azaroaz gozotik 2



Tortoloxetan jolasten ikasi dute 3. eta 4. mailakoek. N. URBIZU

## San Juan eskolan Euskal Herriaren Astearekin gozatzeko ari dira

**ALEGIA** Beste lurraldeetatik etortzen diren ikasleen kultura ere lantzen dute 5

2 eta 3 logelako etxeak, sukaldea, jangela, bainugela garajea eta lorategiarekin. 150.000€-tik aurrera.



**LIZARDI HIGIEZINEN ZERBITZUAK**  
Samaniego Kalea 1 Solairu Artekoa • TOLOSA • Tel.: 659 81 75 05

**E Elkarrizketa****GEMMA ZELAIA** ▶ Bitartekotza Zerbitzuaren arduraduna

# «Ikaskuntza aukerak bideratu eta orientatzea da gure lana»

**Gizartea** ▶ Tolosaldeko Bitartekotza Zerbitzuaren arduraduna da Gemma Zelaia. 2006ko azaroan sortu zen proiektuaren helburuaz hitz egin du.**INIGO TERRADILLOS**

2006ko azaroan sortu zen Tolosaldean ikasten proiektua Tolosaldea GM-LH Institutuan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Europako Gizarte Funderoaren lankidetzarekin. Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzako Bitartekotza zerbitzua eskaintzea du helburu proiektuak. Gemma Zelaia (Tolosa, 1983), bertako arduraduna, azaldu du orain arte egindako lana nolakoa izan den, eta aurrera begira dituzten erronkak zein diren.

**Zer da Bizitza Osoan zeharreko ikaskuntza?**

Pertsonaren garapenean aurrera egiteko prozesu irekia da. Gaur egun ikastea ezinbesteko baldintza bihurtu zaigu, jarrera eta gaitasunen hobekuntza beharrezkoa baita gizarte geroz eta konplexuago batean; horretarako BOZI tresna baliagarria da. Hala, Tolosaldean Ikastek ikaskuntza testuinguru formaletara (ikastetxeak, lanbide heziketa zentroak eta unibertsitateak) mugatzen duen ideia gainditzen du, eta horren ordez, testuinguru ez formalean eta informalean (eguneroko bizitzan, familian, lanean, aisialdian...) jasotako ikaskuntza ere aintzat hartzen du. Doako zerbitzua da, eta helburu nagusia eskualdeko pertsonen ikaskuntza aukerak bideratu eta orientazioa eskaintzea da. Honekin guztiarekin, pertsonen gizarteratzea, aukera berdintasuna, gizartea ulertzeko modu desberdinetara gerturatzeko eta bizi kalitatearen hobekuntza erraztu nahi dugu.

**Iragarki laburrak****SALGAI**

- **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.
- **Txakurrak.** Yorkshire (toy) arrazako 2 txakur saltan dira. Pedigriarekin. Arra: 900 gramo. Emea: kilo bat eta 250 gramo. 618 95 32 12.

**Nori zuzendua dago?**

Gure eginkizunetako bat bizitzako etapa guztietako jendeari ikastea bultzatzea da. Bereziki 25 urte goragoko jendearekin egin dugu lan orain arte, baina herritar guztiei zuzendua dago, nahiz eta programa bakoitzak bere xede-publikoak duen: esaterako, etengabeko prestakuntza langileei zuzendua izaten da, talde zehatzei zuzendutako jarduerak etorkinentzat edo emakumeentzat izan daitezke, hizkuntzen prestakuntza on-line 25 urte baino zaharragoentzat eta abar.

**Nolako prestakuntza eskaintzen duzue?**

Ikastetxeak, akademiak, elkarteak, Tolosaldea Garatzen, INEM, Peñascol Fundazioa... nolabaiteko prestakuntza eskaintzen duten entitate guztiekin jarri gara harremanetan, elkarlan bat bultzatzeko. Aisialdiarekin, lan munduarekin, familiarekin... lotuta dauden ikastaroak biltzen ditugu horrela. Eskualdeko eskaintza jaso eta erabat

**«Gizarteratzea, aukera berdintasuna eta bizi kalitatearen hobekuntza bultzatu nahi dugu»**

eguneratua mantentzea da alde horretatik gure zeregina. Prestakuntza baino gehiago ikaskuntza dela esan daiteke.

**Nola zabaltzen diezue herritarrei informazio hori guztia?**

[www.ikastn.com](http://www.ikastn.com) webgunea dugu eskualdeko prestakuntzaren eskaintza guztiarekin. Bertan elkarre, erakunde, ikastetxe edota enpresek sartzen dituzte antolatzen dituzten ikastaroak. Edonork egin dezake kontsulta jakiteko uneoro ze eskaintza dagoen. Gainera, eskualdeko eskaintzaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoena ere begira dezakegu, zerbitzu bera baitago eskualde ugarritan. Eskualde guztietako informazioa ikusteko [www.hiru.com/ikasgida](http://www.hiru.com/ikasgida) webgunea erabili daiteke.

**Webguneaz gain zeintzuk dira zuzen tresnak?**

I. TERRADILLOS

**» ZENBAIT DATU**

- **Proiektua.** Tolosaldean Ikastn, Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzua.
- **Helburua.** Eskualdeko ikastaroen eskaintzaren informazioa, orientazioa eta jarraipena.
- **Harremanetarako.** Egoitzan bertan (Tolosaldea GM-LH Institutuan, Santa Luzia 17). Telefonoa: 943 65 11 47, 943 65 06 64 edota 615 77 56 78. Interneten: [www.ikastn.com](http://www.ikastn.com) / [www.hiru.com/ikasgida](http://www.hiru.com/ikasgida). E-mailez: [info@ikastn.com](mailto:info@ikastn.com).

Tolosaldea GM-LH Institutuan dugu bulegoa, eta bertara jendea joaten zaigu, eta gu elkarrizketa pertsonal nahiko zehatza egiten dugu, prestakuntza eskaintza eta formatu nahi duten pertsonen arteko zubi lana eginez. Prestakuntza eskaintza handiaren aurrean bitartekoak ematen ditugu hiritarren gidatzeko; orientazio lana egiten dugu, eta jarraipena ere egiten dugu. Dauden ikastaroez herritarrek informatzeaz gain, herritarren beharrek eta hutsuneak zein diren ere hartzen dugu kontuan, izan ere, jendeak ikastaroak eskatzen ditu, eta gu horiek bideratzen ere saiatzen gara. Dena den, webguneaz eta bulegoaz gain, baditugu beste tresna batzuk ere, SMS zerbitzua eta boletinak on-line. Hauetarako izena eman behar da,

eta doakoa da. Izena emateko orduan bereziki interesaturik zauden arloak zein diren aipatu behar dituzu, eta gero horren inguruko ikastaroak sortzen diren heinean iristen joango zaizu informazioa, bai sakeleko telefonora bai eta boletinen bidez ere. Eta bi tresna hauez gain, noski, bi telefono bidez ere egin daitezke kontsultak, 943 65 11 47, 943 65 06 64 edo 615 77 56 78 zenbakietan.

**2006ko azaroan proiektua abian jarri zenutenetik, zer moduzko erantzuna izan duzue?**

Telefonoz eta on-line lan handia ari gara egiten. Bulegora laguntza edo informazio eske joan diren herritarren kopurua txikiagoa dela esan daiteke, baina oraindik hasiberrian gaude, eta gehiago ezagutarazi nahi dugu gure zerbitzua ahalik eta jende gehiagok erabili dezan.

**Zuek ikastaroak eta hitzaldiak ere antolatzen dituzuela aipatu duzue.**

Bai. Ikusten dugunean eskaera bat badagoela, gu saiatzen gara horiek antolatzeaz. Orain arte bi informatika ikastaro antolatu ditugu, eta emakumeek hartu dute parte. Sukaldaritza ikastaroa ere egin dugu, eta batik batik etorkinak izan dira bertan parte hartu dutenak. Hitzaldiak ere antolatzen ditugu, esaterako, apirillean adimen emozionalari buruzkoa egingo dugu langileei eta langabetuei zuzendua.

**L Laburrak****Independentzia Egunerako txartelak salgai daude**

**IKAZTEGIETA** ▶ Igandean Independentzia Eguna antolatu dute Ikaztegieta, eta egun horretan egingo duten bazkarirako txartelak salgai daude. Hauek erosteko azken eguna bihar izango da. 12 eurotan eskura daitezke Toki Alai tabernan. Bazkaria Herrigintza elkartearen egingo dute.

**Elikadura eta bihotzari buruz hitzaldia, Amarotzen**

**TOLOSA** ▶ *Elikadura eta bihotza* ikastaroa antolatu du Amarotzko auzo elkarteak. Hitzaldia Jesus Martinez nutrizio medikua eta Imakulada ikastetxeko osasun hezitzaileak emango du. Gaur izango da 19:30ean Dispensarioaren ondoran.

**Gaur eta bihar eskuratu ahaliko dira zine abonoak**

**TOLOSA** ▶ Martxorako zine eskaintza oparora antolatu dute Tolosan, eta pelikula ugari ikusteaz gain, berrikuntzak ere jarri dituzte, izan ere, abonoak izango dira ikusteko, eta hauek eskuratzeko gero prezio baxuetan ikusi ahaliko dira filmak. Abonoak eskuratzeko gaur eta bihar, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara izango da aukera Leidor aretoko lehiatilan. Interesatuak azkar ibili beharko dute, abonoen kopuru mugatua baitute, eta hauek agortu artean izango da erosteko aukera. Zinema eginko beste berrikuntza orduetegiarena da, igande gauean ere zite saioa eskainiko baitute.

**Hernandez eta Gaztañagaren erakusketak**

**TOLOSA** ▶ Tomas Hernandez Mendizabal artista donostiarraren artelanen eta Txetxo Gaztañaga artista tolosarraren koadroen erakusketak daude ikusgai Aranburu Jauregian. Erakusketak ikustera joan nahi dutenek arratsaldetan izango dute horretarako aukera, 17:30etik 20:00etara, jai egunetan izan ezik.

**Corellara eta Portugalera Iturriza elkartearen eskutik**

**TOLOSA** ▶ Iturriza jubilatutako elkarteak (Euskal Herria plaza) bi bidaiara antolatu ditu martxorako eta apirilerrako. Martxorako antolatu duen bidaiari dagokionez, Corellara izango da. Martxoaren 14an izango da irteera hau, eta 35 euro (bazkideek 33) ordaindu beharko dute interesa dutenek izena emateko. Apirilerrako antolatu duen bidaiari, berriz, Portugalera eta Fatimara izango da, eta hau apirilaren 14etik 19era bitartean izango da. Bidai honetarako nahiz Corellara joateko bidaiaren izena emateko, elkartera jo beharko dute animatzen direnek.

# Euskara hutsezko lehen unibertsitateak Tolosan izan dezake kokalekua

**Hezkuntza** » 2010-2011ko ikasturtean martxan jartzea aurreikusten dute; zortzi titulazio eskainiko litzuzke uskara hutsean.

## ERREDAKZIOA

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), Nazio Eztatubaida Guneak eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak ikasketak guztiak euskaraz ematen dituen euskal unibertsitateak sortzeko egitasmoa jarri du abian. Gainera, Unibertsitate horren kokalekua Tolosa izatea aukeretakoa bat da. Hautagaien artean, entzuteria eman den beste hirietako bat Azpeitia da. Dena den, oraindik zehazteko dago non izango den.

Proiektua sustatzeko talde bat osatu dute hiru bultzatzaileek, eta haien asmoa da 2010-2011ko ikasturtean abiatzea. Denera zortzi ti-

tulazio eskainiko litzuzke euskarazko unibertsitateak. Dena den, arduradunen esanetan, «oraindik gauza asko geratzen dira zehazteko, eta lan handia dago egiteko». Honenbestez, Joxan Oiz sustatzaile taldeko koordinatzaileak azaldu bezala, «besteak beste, hainbat urrats egin behar dira alor ekonomikoan, juridikoan eta akademikoan».

Kontseiluaren helburu nagusia euskararen normalizazioa izanik, normalizazio horretan «ezinbestekotzat» jotzen dute euskal unibertsitateak.

## Orain arte emandako pausoak

UEU izan da egitasmo honen sorburu, honek, 2003ko kongresuan, euskal unibertsitatea sortzen laguntzetik, zuzenean euskal unibertsitatea sortzera pasatzea erabaki baitzuen. Batzorde bat osatu zuten bide horretan pausoak emateko, eta 2006ko uztailean Euskal

Unibertsitatea izeneko aurre-proiektua aurkeztu zuten.

Otsailaren 11n, «Euskal Unibertsitatea sortzeko ahaleginetan lehendabiziko pausoa» eman zen, orduan sinatu baitzuten UEUk, Kontseiluak eta Nazio Eztatubaida Guneak elkarren arteko hitzarmena. «Unibertsitate euskaldun, herritar eta nazional berria» sortzeko helburua dute hirurek ere. Adostasun honen ostean, hurrengo pausuetako bat fundazioa sortzea izango da, eta arduradunek, hila-bete gutxiaren bueltan hau aurkezteko espero dute.

Hitzarmenaren egunean, egitasmoa koordinatzaileak aipatu bezala, euskal unibertsitateak euskal mundua egituratuko du eta euskal mundua ardatz hartuko du. Orain, bidelagun gehiago aurkitu nahi dituzte, eta horretarako harreman saio zabala egingo dute eragile ekonomiko, sozial, politiko eta sindikalekin.

## Gutunak

### Kolaboratzaileen elkartasuna

EAJ eta berak kudeatzen dituen erakundeak, azken hogeita hamar urteotan, kolaborazio politikan daude Euskal Herriaren eskubideak ukatzen eta Espainiaren egonkortasuna laguntzen. Horren adibide dira Jaurritzeko Kultura eta Hizkuntza Politikarako (HPS) arduradun politikoen adierazpenak. Oraingoan, Patxi Baztarririk *Egunkari*ko auzipetuei elkartasuna adierazi die artikulu baten bidez, hainbat hedabidetan, ETArekiko akritikoak” zarete esanez eta, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berriaren* zabaltasunik eza salatuz.

Zein da zabalagoa, EITB? Gai nontzeko hedabideak? Inondik eraz ez. Zergatik kritikatzan dute euskarazko egunkari bakarra, gainerakoekin sartzen ez direnean? Erdarazko hedabide nagusiak euskaraz bihurtzea, hogeita hamar urtetan, lortu ez dutenean? Demokraziarik eza leporatuta kementen demokratikoa” helarazi nahi die auzipetuei Baztarririk. Baina Europan, kolaboratzaileak eta demokrazia kontzeptu kontrajarriak dira, eta kolaboratzaileek inoiz ez dute izan demokraziaren labela.

*Egunkaria*, munduan zegoen euskarazko egunkari bakarra, Jaurritzek eta EAJk jarritako trabak gaudituz sortu zen Euskal

Herrira, baina handik denbora batera Estatu espainiarrak itxi zuten. Harrez gero, bost urte igaro ditu itxia, epaiketarik gabe, eta horrek konpondu ezin diren kalteak eragin ditu. Haren ordez, *Berria* kale-ratu zen. Jaurritzek eta EAJk bereganatzen ahalegindu ziren, baina ezin izan zuten lortu, euskal jendeak kale gorrian gelditu zen langileen egitasmoari -*Berriari*-zilegatasuna eman ziotelako. Jakin badakigu, hala ere, zein den EAJ-aren jardute nagusia: erosi geurea izan dadin, erosi ezin dena kontrolatu, kontrolatu eta baldintzatu ezin bada, desegin.

Patxi Baztarrira kritikoa agertzen da *Egunkari*arekin eta *Berria*rekin, “desadostasunetik. Baina ez alderdikeriari eta asimetriari gabe, Espainiako Auzitegi Nazionalaren tesiekin bat eginda baizik, estatu erasotzaileen estrategian. Estatu espainiarra baita eskubideen urratzaile (bere baitako nazioen eta herritar guztien eskubideak babesteko ardura izan beharko lukeena), eta bera da historikoki Euskal Herria desegiteko, euskaldunak asimilatze eta euskarra desagerrarazteko politika bideratzen ari dena.

Noiz agertu da Baztarrikaren artikulua? Bat, *Egunkari*aren aurkako epaiketa bidean dagoenean: badirudi epaileei argudioak eskaintzen ari zaizkiela zigorra jar dezaten; auzipetuentzako elkarta-

suna baino ETaren aipamena askoz pisu handiago baitu haientzat. Bi, negoziazio prozesu bukatu ondoren, PSOEek eta EAJk ezetza eman diotenean esparru demokratiko bati: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko herritarrek beren etorkizuna askatasunez erabaki ahal izan dezaten proiektu politiko guztien artean, independentzia barne. Hiru, hauteskunde kanpainaren baitan: zailtzean edo desinformaturik dagoen jendearen artean botoak bilzteko.

Batek baino gehiagok pentsatu du Baztarrikaren elkartasuna batzuetan duen asmoak helburu bat duela: *Egunkari*ko auzipetuei min ematea eta beren arteko zati-keta eragitea; euskalgintza = ETA ekuazioa erabiliz *Berria* estigmatizatzea eta euskal komunitatea kriminalizatzea; beharrezko aldaketa politikoa eragotzea, PSOEek eta EAJ-k nahi duten estatutuen erreforma berria indartzeko. Euskal Herria euskalduna izan dadin, ezinbestekoa da alderdikeriari gabe eta elkartasunetik jokatzeko; euskararen erabilera irabazpidean jartzeko gutxienekoak adostea; baina, adostu al daiteke hizkuntza politika eragin korrik *Berriaren* aurka ari direnekin? Deabruak gaurda gaitzala kolaboratzaileen elkartasunetik.

**Inaxio Agirre (Ezker abertzaleko kidea).** Tolosa.

# TXOTX

## Urbartarte

Ergoiena auzoa  
Tel.: 943 180 119 Ataun

## Laia

Arkolla auzoa, 33 (www.laiaerretegia.com)  
Tel.: 943 646 309 (info@laiaerretegia.com) Hondarribi

## Lindurrenborda

Nabaz auzoa  
Tel.: 948 637 212 Lesaka

## Ola

Meaka auzoa, 102  
Tel.: 943 623 130 Irun

## Aduriz

Aranedef bidea, 28. Iturriz auzoa  
Tel.: 943 494 353 Oiartzun

## Egi Luze

Zamalbide auzoa  
Tel.: 943 523-905 Errenteria

## Txopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai (txopinondo@wanadoo.fr)  
Tel.: 559 546 234 Azkaine

## Bordatto

Bordatto etxaldea  
Tel.: 559 491 822 Jatsu

## Donosti

Zamalbide, 8  
Tel.: 943 526 041 Errenteria

## Txindurri Iturri

Mendari auzoa (www.txindurri.com - txindurri@txindurri.com)  
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 Itziar

## Arratzain

Arratzain Zahar baserria (www.agroturismoarratzain.com)  
Tel.: 943 366 663 (info@agroturismoarratzain.com) Usurbil

## Begiristain

Iturrioz baserria  
Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta

## Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)  
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) Tolosa

## Sarasola

Bebailara auzoa  
Tel.: 943 690 283 Asteasu

## Zabala

Garagartza baserria (www.rzabala.com)  
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) Aduna

## Otazu

Otazu baserria  
Tel.: 943 670 044 Leaburu

## Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35  
Tel.: 660 654 317 Tolosa

## Erreka

Erreka auzoa  
Tel.: 948 510 625 Leitza

## Elutxea

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria  
Tel.: 943 556 981 Urnieta

## Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa  
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

## Otsua-enea

Osiñaga auzoa  
Tel.: 943 556 894 Hernani

## Iparragirre

Osiñaga auzoa www.iparragirre.com  
Tel.: 943 550 328 Hernani

## Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra - rezolasagardotegia@euskalherria.org  
Tel.: 943 556 637 Astigarraga

## Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)  
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

## Gartziategi

Gartziategi baserria www.gartziategi.com  
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

## Akelenea

Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com  
Tel.: 943 333 333 info@sidreriaakelenea.com Astigarraga

## Gurutzeta

Oialume bidea 63 (sarrera Ergobia auzotik) gurutzeta@gurutzeta.com  
Tel.: 943 552 242 www.gurutzeta.com Astigarraga

# 50 urteko hiru lagun gorabeherak erakusten duen obra, bihar, Gurean

**Villabona** » JP-Teatro de la derrota taldeak 'Cincuentones' antzezlanaren emango du bihar, 22:00etatik aurrera.

IMANOL GARCIA

Unibertsitatean batera egondako hiru lagun elkartzeko dira, 50 urte inguru dituztela, eta bere gorabeheren berri ematen diete elkarri. Esaldi batean horixe izango litzaizkeen *Cincuentones* antzezlanaren eskaizte duena. Janfri Toperak, antzezlearen batek, ondokoa gaineratzen du: «Komedia bat da, baina sakonera-kargarekin».

JP-Teatro de la derrota antzerki taldeak emango du *Cincuentones* obra Gurea aretoan. Bihar izango da, 22:00etan. 8 euro ordaindu behar da (6 euro Gazte Txartelarekin) sarrerarengatik. Janfri Toperaz gain, Paco Obregon eta Kike Diaz de Rada dira hiru pertsonaiei bizi ematen dietenak. Bata presti-



Cincuentones antzezlanaren une bat. HITZA

gio handiko abokatua da, botere esparru kontserbadorearen gertuko. Bestea enpresa munduan arrakasta izan duen publizista da. Hirugarrena unibertsitate irakaslea da. Hiru antzezlariek ibilbide luzea dute bai antzerkian, telebistan eta zinemaren, etabatek egiten dute ere *ETB2ko Mi querido Klinkowsky* saioan.

## Personaiak barrutik biziz

Toperak azaltzen duenez, hiru lagunek bat egiten dute elkarte batean. «Bakoiatza bere bizitza nola joan den, bai arlo pertsonalean bai lanean, kontatzen doa. Hor sortzen joaten dira enbidiak, eztabaidak...». Hiru antzezlariek telebistan zein antzerkian batera aritzeak bere alde onak dituela dio Tope-

rak: «Lagunak gara eta ez dugu ia entsegurik egin beharrik. Horrek eszenatokian oso sueto egoteko bidea ematen digu eta, beraz, antzeztu baino gehiago, pertsonaiek barrutik bizitzen ditugu».

Pertsonaiek hiru arketipo betetzen dituzte, «gizartean zati handi bat hartzen dutenak», eta horregatik jendea beraiekin identifikatu egiten dela dio. «Emakumeek ere beraiekin senarra, koinatua edo bizilaguna ikus dezakete, eta ikus-entzule gazteek beraiekin aitak direla pentsa dezakete», zehazten du Toperak.

Antzezlanaren hasieratik bukatu arte ikus-entzuleak barrez daudela dio Toperak, baina aldi berean bertan esan diren gauzei buruz hausnarketa egiten ateratzen direla aretotik ere gaineratzen du. «Barreak bularra irekitzen dizu eta horrek tripa barrutian ibiltzea ahalbidetzen du». Antzerkiaren helburuetako bat, bere ustez, horixe dela dio: «Ondo pasaratzea gain pentsaraztea».

# Antzerkiak eta ibilaldi gidatuak emango diote hasiera aurtengo Kultur Asteari

**Anoeta** » Bihar hasiko dira ekitaldiak, 'Grebana gaude' antzezlanarekin; etzi, goizean, Anoeta-Alkiza-Anoeta ibilaldi gidatua.

ERREDAKZIOA

Hainbat ekitaldi izango ditu aurtengo Anoetako Kultur Astean. Bihar hasi eta martxoaren 9ra arte iraungo du. *Grebana gaude* antzezlanaren, bihar, eta Anoeta-Alkiza-Anoeta ibilaldi gidatua, etzi, izango dira lehen bi ekitaldiak. Besteei dagokionez, besteak beste, martxoaren 8an ospatzen den Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruko ekitaldiak ere Kultur Astean baita sartu dira.

Hiru emakume garbitzaile dira *Grebana gaude* antzezlanaren protagonista. 12 urtetik gorakoentzako komedia da eta sarrera doakoa da. Bertan hiru garbitzailek grebarajoa etarabakitzen dutela kontatzen da, grebaren zergaitia hasiera batean inork argi ez badu ere. Hirurak elkartu egingo dira, eta solasari ekingo diote. Oso desberdinak dira beraiekin artean, eta gaiak jorratzeko orduan ezberdintasun hauek agerian geratuko dira. Ironia handiz maitasunaz, familiaraz, sexuaz, ilusioez... ariko dira, emakumezkoen pentsaera eta ikuspegi desberdinak azalduz.

## » EGITARAUA

### Hilak 29, bihar

■ **22:00.** *Grebana gaude* antzezlanaren, udal areto nagusian.

### Hilak 30, etzi

■ **09:00-13:00.** Anoeta-Alkiza-Anoeta ibilbidea.

### Martxoak 3, astelehena

■ **18:00.** Diaboloarekin jolasean tailerra plazan.

### Martxoak 4, asteartea

■ **19:00.** *Intervencion y vinculo* liburaren aurkezpena udal areto.

### Martxoak 5, asteazkena

■ **18:00.** Loatzoko musika eskolako ikasleek piano eta eskusoinu kontzertua emango dute udal areto nagusian.

### Martxoak 6, osteguna

■ **18:00.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria liburuetegian.

### Martxoak 7, ostirala

■ **15:30-17:00.** Zuhaitz Eguna. Ikasleek landaketak egingo dituzte.  
■ **18:00.** *Xurdinen kontzertua* ikuskizuna frontoian, 3 euroren truke.

■ **22:00.** *Mooladee* filma udal areto nagusian.

### Martxoak 8, larunbata

■ **10:00-12:00.** Barreterapia saioa kiroldegian. Parte-hartzea doan izango da  
■ **20:30.** Afaria Buztina jatetxean.  
■ **22:30.** Jone bakarlariaren kontzertua.

### Martxoak 9, igandea

■ **10:30-12:30 eta 15:30-17:30.** Xake txapelketa kiroldegian.



Ibilaldi gidatua Ateaga baserria bisitatuko dute. ANOETAKO BASERRIAK LIBURUTIK

### Ingurua ezagutzeko

Bigarren ekitaldia etzi goizean izango da, Anoeta-Alkiza-Anoeta ibilbide gidatua. Aranzadi Zientzi Elkarteak kidea den Mikel Erraz-

kin anoetarra ariko da gida bezala, eta azalpenak emango ditu bai Basagaingo Burdin Aroko herrixkan eta baita hainbat baserrietan ere. Kultur Asteko beste ekitaldi

begirada bat eman ondoren, adin tarte guztiak kontuan hartu direla ikusten da. Haurrek diaboloarekin jolasteko aukera izango dute, Aimar Alonso anoetarren gidaritzapean; ipuin kontalaria ere izango dute, zuhaitzak landatzeko aukera, *Xurdinen kontzertua* ikuskizuna eta Xake Txapelketa. Gazte eta helduei zuzenduta, liburu aurkezpena antolatuta dute, filma bat emakumearen ablatzioari buruzkoa, barreterapia saioa, Jone bakarlariaren kontzertua eta afaria, Emakumearen Nazioarteko Egunean. Afarira joateko udalaretoan edo kiroldegian eman behar da izena martxoaren 6a baino lehen. Adin guztietarako, Loatzoko ikasleek kontzertua emango dute.

## Laburrak

### Graduatu titulua jasotzeko deialdia ikasleei

**ANOETA** » Anoetako Herri Ikastolatik bidali duten ohar batean azaltzen denez, 2006/2007 ikasturtean graduatu lortu zuten ikasleak, hau da, DBH4 mailako ikasleak, Ikastolatik pasa daitezke dagokien titulua jasotzea ikastetxearen ordutegian.

### ONA txartel berria egunero tramitatzea aukera

**ANOETA** » ONA erabilera anitzeko osasun txartel berria tramitatzea aukera dago doan astelehentik ostiralera KZgunean. Egundero, 16:00etatik 20:00etara eta ostiralean 11:00etatik 13:00etara ere. Orain arte 28 pertsonak tramitatu dute Anoetan, eta Gipuzkoako KZguneetatik bakarrik Lezon, Deban, Beasainen, Villabonan eta Anoetan tramitatu daitezke. Edozein pertsonak bidera dezake txartela Anoetan, ez baita beharrezkoa anoetarra izatea.

### Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldia

**IRURA-TOLOSA** » Kilometroak 2008 egitasmoaren baitan, martxoaren 8an, Leidor Antzokian, Pirritx eta Porrotx pailazoek *Eskerrik asko* ikuskizuna egingo dute. Sarrerak eskualdeko bost ikastolatan daude salgai, hau da, Villabonako Jesusen Bihotzan, Ibarako Uzturpen, Anoetako Ikastolan, Tolosako Laskorainen eta Irurako Ikastolan. Guztietan idazkaritzan erosi daitezke sarrerak. Leku horiez gain, Tolosan zabalik dagoen KMK-08ren dendan (Kale Nagusia, 15) ere erosi daitezke. Eskerrik asko ikuskizunaren bi saio izango dira; bata 17:00etan eta bestea 19:00etan. Sarrera bakoitza 6 euroren truke eskura daitezke.

### Kale Berriko zati batean aparkatzerik ez igandean

**VILLABONA** » Datorren igandera, martxoak 2, Aiztondo Klasikoa txirindularitza proba antolatuta dute. Hori dela eta, Villabonako udaltzaingotik ohar batean azaldu denez, egun horretan, 07:00etatik aurrera, kale Berriko 36 eta 64 zenbakien artean ezin izango da aparkatu.

### Emakumearen Egunaren inguruko ekitaldiak

**ZIZURKIL** » Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen da eta egun horretarako ekitaldiak antolatuta dituzte Zizurkil. Horrela, Miarrizko (Lapurdi) Txokolate Museora irteera egingo dute. Ondoren, Baionako Trinke-tean bazkalduko dute. Izen emateak Aurrera plazako bulegoetan eta liburuetegian egin daitezke. Izena ematerakoan 28 euro ordaindu behar dira.

# Euskal Herriaren Asteaz gozaten ari dira eskolan

**Alegia** » Beste lurraldetatik etorritako ikasleek lurraldeak lantzen dituzte, eta oraingoan «geurea jorratzea otu zaigu».

## NEREA URBIZU

Euskal Herriaren Astea antolatu dute Alegian, San Juan eskolan. Astelehenean hasi ziren, eta bihar arte ariko dira. Axun Esnaola irakasleak azaldu bezala, «beste lurraldeetatik datozen ikasleek lurraldeei buruzko asteak antolatu dituzte, kultura horiek gehiago ezagutzeko asmoz. Dagoeneko gure eskolan dauden lurralde ezberdin guztietakoak egin ditugu, eta horregatik, oraingoan Euskal Herriari buruzkoa egitea pentsatu genuen».

Txikienak oskol apustua egiten ari dira patioan, eta «oso arrakastatsua izaten ari da». Lehen ziklokoak txapetan ari dira, bigarren ziklokoek tortoloxetan (tabak) ikasi dute: «Irakasle batzuk bazekiten jolasten eta ikasleei irakatsi zaie. Ez da erraza izan tortoloxak lortzea, baina batekin eta bestearekin

azkenean lortu ditugu». Plastikozkoak eta egitazkoak zeuden patioan. Ikasle batek txekor batena ere lortu zuen.

Ipuin mitologikoak DVD batean ere ikusten ari dira, eta 3. ziklokoak, berriz, Munduari Bira 18 egunetan bideotik ateratako Euskal Herriari buruzko ipuinen bat, Joseba izeneko aitonaaren eskutik.

Asko ikasi ahal izango dute ekitaldi hauekin alegiarek, paneletan ohitura, jaki, kirol, nahiz datu geografikoak ere jaso baitituzte.

## Kultur Etxean emanaldia

Atzo ordu eskas batean Alegiko Kultur Etxean ikasleek emanaldi berezi bat eskaini zuten. Espreski egun honetarako sortutako bertso pare bat kantatu zuten Euskal Herriarekin lotuta, Txintxarri Txiki-ko partaide batzuk hiru kanta eskaini zituzten (musikako irakasleak ere lagundu egin zien eskolan, kantuak prestatzen). Olerkiak ere entzun ahal ziren 3. mailako eskutik. Bihar ere Euskal Herriko esentziak gozatuko dute.



HHko haurrek oskol apustua ezagutu dute. N. URBIZU



5. eta 6. mailakoak tokan jolasten ari dira jolasorduetan. Udaletxeak utzitako toka da eskolan dagoena. NEREA URBIZU

## Z Zurea da hitza info

# Liburutegiko eta kiroldegiko ordutegia

## KARMELO

Nire uste apalean, murriztegiak dira udal kiroldegiko eta batez ere udal liburutegiko ordutegiak: ordu gehiagoz zabalik izatea eskatuko nuke.

Gaur ikusi dut nonbait, Barakaldon goizeko zazpiak eta laurdenetik gaueko hamaikak arte jarri dutela hango bi kiroldegiko ordutegia. Tolosako kiroldegia bezero kopuruz gaina jota dagoela diote

eta gure kuotekin agian posible izango da ordu gehiagotarako langileak kontratatzea.

Liburutegiari buruz: onartezina da goizeko hamarrak arte! Ez zabaltea eta eguerdian ixtea.

Horretaz gain: internet bidez zerbitzu horiek erabiltzeko aukera eman behar lukete bi etxe publiko horiek, hau da: orduak erreserbatu, liburuaren fondoa kontsultatu... Ene uste apalean.

# Anoetako festetako kartel lehiaketa abian

## ERREDAKZIOA

Anoetako Festa batzordeak festak iragartzeko kartela hautatzeko lehiaketaren deialdia egin du. Irabazten duen kartelak 2008ko festa iragarriko ditu, eta festetako egitaraua erantsiko da gero. Hauek dira baldintzak: kartelak gehienez 29,7 zm bider 29,7 zm-ko neurria izan behar du. Teknika libre da (eskuz, akuarela...), Formatu digitalan aurkeztuz gero, gutxienez 300 ppi-ko erresoluzioa izan beharko du.

## Epea apirilaren 30a arte

Ondorengoa agertu behar da: *Anoetako Festak 2008*. Koloretan aurkeztuko da, beste inon ez aurkeztutakoak, eta hiru lan gehienez aurkeztu ahal izango dira.

Lanarekin batera, eta kartazal itxi batean egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta adina jarriko dira. Kartazalaren kanpoan eta kartelaren atzealdean, berriz,

egilearen goitizena. Lanak aurkezteko epea apirilaren 18an amaituko da udaletxean. 250 euroko saria jasoko du irabazleak. Tokiko egilearen lanik hobereenerako 150 euroko saria egongo da.

## Marrazkiak jaso daitezke

Aurkeztutako lanekin erakusketa bat antolatuko ahal izango du Festa batzordeak, eta amaitu ondoren 15 eguneko epean saririk eskuratu ez duten lanak jaso ahal izango dira. Festa batzordeak berarentzat gordeko ditu lanak editatzeko eta erabiltzeko eskubideak. Epe hori igarotakoan lanak jaso ez badira, egileek uko egin dietela ulertuko da, eta artistek ez dute erreklamazioz egin edo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Epaimahaia eman gabe utzi ahal izango du saria, lehiaketa honetan aurkeztu diren lanek saria lortzeko kalitate nahikoa ez dutela uste badu.

# nekane **altz**elai emanbotoa

Diputatuen Kongresurako hautagaia Gipuzkoatik

## ekitaldi nazionala

data  
martxoaren 2a

ordua  
11:30

udalerrria  
donostia

tokia  
kursaal (Kubo txikia)



eusko  
alkartasuna

herriarenahotsa



euskoalkartasuna.org



Ohiko bilkuran ohiko giroa bizi izan zen herenegun Ibarako udaletxean. ASIER IMAZ

## EAJ, EA, PSE-EE eta EB-Aralarrek osatu dute Gobernu Batzorde berria

**Ibarra** » Ohiko bilkuran ordainsariengatik inguruko erabaki berriak onartu zituzten, alkatearen soldata %39an igoaz.

### ASIER IMAZ

Aldaketa eta erabaki berriak hartu zituzten herenegun, Udaltzako osoaren ohiko bilkuran. Horien artean gobernu batzorde berriaren sorrera eta Udalkideen ordainsari berriak onartu zituzten bozka eskubidea zuten alderdi guztiek aho batez, hau da, EAJ, EA, PSE-EE eta EB-Aralarrek.

Azken bilkuretan bezala euskara ere protagonista izan zen, alderdi guztiek udaletxe atarian utzi baitzuten bilkurak irauten zuen bitartean.

### 10 puntuko gai-zerrenda

Ohiko bilkura 18:00etan hasi zen bi zinegotzi falta zirela, PSE-EE-ren Aitor Gonzalez eta EA-ren Jon Ander Bastarrika.

Puntu guztiak aho batez onartuak izan ziren, EAEk sartutako «Erakunde Politikoen ilegalizazioari buruzko mozioa» izan ezik. Bederatzigarren puntu hau, aste-

lehenean 18:00etan egingo den ezohiko bilkuran bozkatuko da, Udaltzako gobernuak aurkeztuko duen mozio batekin batera. Honen inguruan, ikusle bezala aurkitzen zirenen EAren zinegotziak protesta egin zuten, «hilabete lehenago sartu genuen mozioa eta zuek adostasunera iritsi ez zaretelako atzeratu egingo duzue orain» salatuz.

### Gobernua eta ordainsariak

Seigarren puntuan Gobernu Batzordea sortzea bozkatu zuten eta aho batez onartu zuten EAJ; EA; PSE-EE eta EB-Aralarren arteko gobernu taldeasortzea. Orain artean bezala, Chelo Romeok (EAJ) jarraituko du alkate bezala eta Juan Luis Cidek (EAJ) lehen alkateorde bezala. Bigarrena Luis Alonso (EA) izango da eta hirugarrena Aitor Gonzalez (PSE-EE).

Luis Alonso eta Aitor Gonzalezen postu berriez gain, ordainsarietan ere aldaketak erabaki zituzten gobernuko lau alderdiek.

2007ko uztailaren egindako bilkuran, ordainsariak erabakiak geratu ziren. Orduan, EAJk proposamen bat aurkeztu zuen baina EA eta PSE-EEK ez zuten onartu. Alkatearen soldatari zegokion puntuan, Chelo Romeok urtean 50.273

euroko soldata gordina proposatu zuen. EA eta PSE-EEK 35.553 euro rotara jaitsi zioten, nahiz eta alkateak jakinarazi duenez, «nik 22. mailakoa edo 24koa jaso dut, beti ere Eudelen gomendioak kontutan hartuta. Beste norbait alkate izanda ere gauza bera eskatuko nuke postu horretarako». 22 edo 24. maila 40.000 euro eta 45.000 euro arteko soldata gordina da. Herenegun egin zen bilkuran ordea, 26. maila igotzea erabaki zuten EAJ; EA; PSE-EE eta EB-Aralarrek alkatearen urteko soldata gordina, ia 50.000 euro tara hain zuten ere. EA eta PSE-EEK 2007ko uztailaren aurrera ateratu zuten bozketarekin alderatuz, %39ko igoera suposatzen du aldaketak honek.

### Gaztelera hutsean

Herenegun burutu zen bilkura gaztelera hutsean egin zuten alderdi guztietako kideek. Ikusle artetik EAren zerrendakideek ere gaztelera hutsean aritu ziren. Euskara azken unean bakarrik entzun zen, EAren jarraitzaile batek zergatik euskara bilkuretan ez zen erabiltzen galdetuz. Alkateak itzultzaileari ez ziotela deitu onartu zuen.



## Espainia eta Otaolaren aldekoak

**LIZARTZA** » Herri erdira gerturata horma gehienak hauteskunde kartekin edo pintaketekin aurkitzen dira; PNV-EAJren aurkakoak, PSOEn aurkakoak, faxisten aurkakoak, euskal preso eta iheslarien aldekoak... Atzo gauean pintaketa lanetan jende berria aritu zen, leloak berriak baitira: *Viva España, Otaola aurrera, Doña Regina...* ASIER IMAZ

## Hamasei puntu



### » Zilarrezko Jaurtiketa

Jon Altuna

**E**z da aste bete pasa eta jadanik hilabete daramatela dirudi. Egunero telebistan agertzen diren bi pertsonaia horietaz ari naiz, Zapatero eta Rajoy. Martxoaren 9a pasa dadin irrikitan nago, izan ere, bi pertsonaia hauek esaten dutena ezin guztiz sinetsi eta egunero eta orduro hauen inguruan hitz egiten

duren telebista eta irriti saioak astunak egiten dira guztiz. Batzuek lehenago eta besteek orain gutxi, euskal egoera konpontzeko ez dute ezer asko egin, eta euskaldunoi dagokigunez behintzat hauteskunde hauek ez dute itxaropenik eskaintzen, are eta gutxiago bertan denak ez gaudela jakinik.

Neureari helduz, zer esan, bigarren saikatuaren aurka berdinketa baliotsu bat lortu genuen. Izan ere, nahiz eta igandean Ipuruan jokatutako partida, eta baten batek pentsa dezakeen bi puntuk ihes egin dutela, kontuan hartu behar da aurkaria Malaga zela, ia seguru lehenengo mailara igoko den taldea eta bere aurka talde gutxi lortuko dituzte puntuak, horregatik lortutako emaitzarekin pozik egoteko moduan gaude. Gainera bide batez, Errealari emaitzarekin lagundu genion.

Puntuak lortzea gero eta gehiago kostatzen da, baina bide onetik goaz. Hamasei jardunaldi falta dira eta hamasei puntu behar ditugu.

Ligaren azken txanpan sartzen ari gara eta orain arte egindako lan ona bigarren mailan mantenduta osatu nahi dugu. Denboraldi hasean gutxi espero zuten gu hor ikustea, baina orain gure esku dago helburua lortzea eta hainbeste lan egin ondoren pena litzateke hau ez lortzea.

### DISEINATZAILEA

Donostia aldeko publizitate eta marketin enpresa batek diseinatzaile bat behar du.

#### Erreferentzia: 2008 IR-DP

#### Eskatzen da:

- Diseinuan esperientzia izatea.
- Diseinu programak menperatzea (Freehand, Photoshop, Quark...).
- Publizitate produktuen ekoizpenean esperientzia izatea.
- Harremanetarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

#### Eskaintzen da:

- Urte bateko kontratua (luzatzeko aukera).
- Egun erdiko kontratua (goizez edo arratsaldean aukeran).
- Lanean berehala hastea.

Bidali curriculuma [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net) helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, martxoaren 9a baino lehen.

### DONOSTIALDEKO ENPRESA BATEK KOMERTZIALA BEHAR DU (Erref. Bt 08\_1)

Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna duen pertsona baten bila gabilta. Esperientzia izatea ez da beharrezkoa, baina kontuan hartuko da antzeko lanetan eskarmentua izatea. Ezinbestekoa da euskaraz jakitea eta gidabaimena eta autoa izatea.

Aukeraturako pertsonaren egitekoa hainbat produktu saltzea izango da, eta etorkizun interesgarria duen proiektu berri batean parte hartzeko aukera eskainiko zaio.

Lan baldintzei dagokienez, lan kontratua eskaintzen da, gizarte segurantzarekin, eta, soldata finko interesgarriaz gain, salmenten arabera komisioak ere izango ditu.

Curriculum Vitae zehatza bidali martxoaren 10erako [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net) HELBIDE ELEKTRONIKORA. Ez ahaztu erreferentzia zehaztea.

## Laburrak

### Indar Gorri peñaren jaialdia Leitzako Gaztetxean

**LEITZA** ● Larunbat honetan Indar Gorri Osasunako peñaren 20. urteurrena dela eta, jaialdia egingen dute Atekalbeltz Gaztetxean. Leitzako Osasunaren aldeko Txaragorri peñako kide den Unai Olanok azaldu duenez, «20. urteurrenaren jaialdi potoloa abenduaren zuten, Iruñean eta orain Nafarroako hainbat herrietara joaten ari dira». Lesakan izan dira, Altsasuan eta orain Leitzara datoz. 18:30ean ongi-etorria egingen zaie, eta ondoren triki-poteoa egingen dute. 22:00etan kontzertuak izanen dira.

### 6 bikote sailkatu dira Nafar Jokoen finalerdietarako

**PILOTA** ● Joan den asteburuan Nafar Jokoen bigarren itzuliko ligaxka amaitu ondoren, asteartean jakite-rama eman zuten Nafarroako ze biko-tek sailkatu ziren finalurrekoetarako. Aurrera Pilota Eskolatik 13 bikotek parte hartu zuten eta hauetatik 6 sailkatu dira: hasiberrietan 4 (2 lehenengo mailan), eta haur-kategorian 2. Bestalde, lera



Nafar Jokoezako partida bat. N. GARZIA

Agirrek eta Maite Ruizek irabazi egin zuten Egian jokatuak partidak.

### Abstentzioa eskatzeko argazkia, etzi, 13:00etan

**LEITZA** ● Martxoaren 9an egingen diren Espainiako Gorteetarako hauteskundeetarako argazkia ateratzeko deialdia egin dute, Espainiako hauteskundeetan abstentzioa eskatzeko. Argazkia 13:00etan aterako dute, plazan.



Argazkian ikus daitekeen bezala, bilera hasieran kartulinak banatu zituzten, bileran herritarrek parte har zezaten. N.G.

# Jendearen parte-hartzea oinarrizkoa, Agenda 21en azkeneko bileran

**Gizartea** » Goizueta, Leizta eta Aresoko 20 lagun inguru bildu ziren mendialdeko herrien inguruan hitz egiteko.

**NAIARA GARZIA**

Herenegun iluntzean udaletxean Agenda 21aren inguruan egindako bileran Leitzako eta Goizuetako 20 lagun inguru bildu ziren. Herri-tarrez gain, Terra-Prometea lan taldeko 3 kideak (proiektu hau aurrera ateratzeko ari direnak) ere bertan izan ziren: Zorione Aierbe, Iciar Montejo eta Gurutze Santxo, baita Rafael Tortajada Martinez ere, Nafarroako Gobernuo Hiri Ingurugiro Arloko arduraduna.

Azken honek azaldu zuenez, proiektu honen berezitasunetako bat lan egiteko modua da, jendearen parte-hartzea, demokrazia parte-hartzailea. Horrexegatik orain arte egin dituzten bileretan eta atzokoan ere hori argi eta garbi ikusi zen. Goizuetatik 8 lagun inguru etorri ziren, Migel Lekuona alkatea barne. Leitzako alkatea

ere, Xabier Zabalo, bertan zen, baita E Aren zinegotzia Fernando Garcia ere, gizarte eragileak, eta Aresoko zinegotzia Igor Arraia.

Terra-Prometeatik aurreko astean azaldu zuten bezala, gizarte arloko gaiak jorratu zituzten.

### Lan egiteko metodoa

Antolatzaileek lauzpabost kartulina jarri zituzten hormetan, bakoitza kolore batekoa eta gai batekin lotua, eta ondoren sugusak banatu

zituzten eta taldeak bakoitzari egokitutako kolorearen arabera osatu zituzten. Talde bakoitzak kartulina bakoitzean gai horren inguruan zonaldean ikusten zituen gauza onak eta gabeziak idatzi zituen, eta azkenik, denen artean komentatu zituzten. Bilera 19:00etan hasi eta 21:00etan amaitu zen.

Zonaldekoak diren herritarrek ez dute normalean haien arduren inguruan mintzatzeko aukerarik izaten eta metodo honen bitartez,



Zorione Aierbe, Gurutze Santxo eta Iciar Montejo. N. GARZIA

herenegun hori egiteko aukera izan zuten.

### Jorratutako gaiak

Hauek dira, orokorrean, udaletxean bildu ziren herritarrek jorratu zituzten gaiak. Ekonomiari dagokionez, Sarriok azkeneko urteetan gazte batzuk hartu zituela aipatu zuten. Aresoko industrialdeak, berriz, erantzun ezberdinak sortu zituen, Leitzakoak lan gehiago ez zuela ekarri ikusita zenbaitek zalantzak azaldu baitzituzten, baina goizutarrek, ordea, «ez badago deus, orduan bai ez dagoela lanik» esan zuten. Lehenengo eta bigarren sektoreak krisian zeudela ere aipatu zuten, bigarrenaren kasuan segurtasun eza azpimarratu zuten eta hirugarren sektoreari dagokionez, «orain arte ez dela bultzatu» aipatu zuten.

Askoz ere emakume gehiago langabezian zeudela ere esan zuten, eta ildo honetatik jarraituz, emakume gazteak gizonezkoak baino prestatuagoak daudela azpimarratu zuten. «Hartu behar dituzten lanpostuek ez dute formakuntzarekin inolako zerikusirik». Beste zenbaiten ustez, berriz, ikasketak eta lana uztartzea «gaurko moda» da.

Enpresak sortzeko joerarik ez zegoela ere aipatu zuten. «Instituzioetatik bultzatzen ez delako» edo «autonomoek lan asko egin behar izaten dutelako, eta ardura gehiago exijitzen duelako horrek». Beste zenbaiten ustez, berriz, «zonaldean ez dago nekazal proiektu bat aurrera ateratzeko kulturarik».

Kulturari dagokionez, Kultur Etxe baten falta azpimarratu zuten, baita kultur koordinatzaile batena ere. Goizuetan, berriz, liburutegirik ere ez dute eta Leitzan zineak berrikuntza lanak egiteko premia zuela ere azaldu zuten.

Leitzan osasun zentroan espezialitateen falta nabarmendu zuten eta eguneko zentro baten eta zonalde mailan zahar etxe baten beharra.

Hezkuntzari dagokionez, lanbide heziketa ez dagoela azaldu zuten herritarrek, eta Goizuetan DBH desagertzeaz dagoela. Leitzaren kasuan feskola-porrota handia dagoela ere azaldu zuten. Institutuan gurasoek interes gutxi erakusten zutela ere aipatu zuten, gurasoak ez direla hezkuntzan asko inplikatzeko, alegia.

## Urteurrena

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
**DOAN** agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943-65 56 95

II. urteurrena  
**TRINIDAD MUÑOZ ARRATIBEL**

(2006ko otsailaren 28an hil zen)

Beti izango zara gure artean.

**Etxekoak**



**TOLOSAN**  
2008ko otsailaren 28a



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaldia

■ **Tolosa.** Yolanda Cervero psikologoa-terapeutak *Harreman motak, arauak, mugak eta negoziazioak gure seme-alaba nerabeekin* hitzaldia emango du Hirukide-Jesuiten-18:30ean, LH 5etik Batxilergo 2 arteko ikasleen gurasoentzat.

### Deialdiak

■ **Belauntza.** Kultur Etxeak Oargi Mendi Elkartearen laguntzaz Eskiatzera joateko irteera antolatuko du; Otsailaren 29an iluntzean atara eta Martxoaren 1 eta 2an Candanchun eskiatzeko aukera egongo da.

■ **Tolosa.** Martxoan izango den Zine festarako abono salmenta Leidor aretoan ostegunean eta otsailaren 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

■ **Tolosalde.** Eskiald Euskal Herriari 100 urte bete dituela eta atzoko eta gaurko eskiatzaileen afaria egingo da martxoaren 2an Lekunberriko Aiestaran hotelean. Izen-ematea, 670 029898 (Ane) eta 943 288652 (Alberto) telefonotan.

■ **Zizurkil.** Gutun Lehiaketa naturari buruz 6 urteko aurrera. Bilan aurkez daitezke, gehienez bi orrikoak. Gutunak Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateko bulegora eraman behar dira, Zizurkilgo Muñoa kaleko 36 zenbakian.

### Zinema

■ **Tolosa.** *El violin* filma emango dute zine-forumean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

### Erakusketa

■ **Tolosa.** Txetxo Gaztañagaren artista tolosarraren marrazki eta margolanak izango dira ikusgai Aranburu Jauregian, ohiko ordutegian.

### Kirola

■ **Tolosa.** Javier Urkolaren omenezko VII. Herri Duatloia mar txoaren 8an, 16:00etan hasita: 2 km korrika, 15 km bizikletaz eta 2 km korrika. Izen-ematea, udal-etxea, Karlis, Shanti Kirolak eta Zut-en.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



Gutzira 15.000 lagun inguruk bisitatu zuten Tolosa Gourmet-ek azokan jarri zuen stand-a. HITZA

# Tolosa Gourmet Santiagon

**Tolosa** » Santiagon ospatu berri den Gastronomiaren Azokan parte hartu du Tolosa Gourmetek, bertako produktuekin.

### ERREDAKZIOA

Tolosako babarrunak, Ezeizako zigarratxoak, Gorrotxategiko Xaxuak, ... Guztiek euren tartea izan zuten pasa den astean Santiagon (Galizia) ospatu zen Gastronomiaren Azokan; izan ere, Tolosa Gourmetek bere stand-a atondu zuen bertan.

Gutzira 15.000 lagun inguruk bisitatu zuten Tolosako erakusma-

haia, tartean, gastronomiako kritikoak, sukaldari ospetsuak (Ferra Adria esaterako), enpresa berritzaileak eta bisitariak.

### Ruiz eta Belaunzaran, sukaldari lanetan

Jakina denez, ezin ziurtatu produktua kalitatezkoak diren dasatzen ez badira. Eskualdeko bi sukaldari hartu zuten babarrun platerkada ederra prestatzeko ardura, bertaratzen zirenek proba zezaten. Hain zuzen ere, Roberto Ruiz, Fronton jatetxekoa eta Felix Belaunzaran Berrobiko Iriarte jatetxekoa izan ziren erakustaldia- ren arduradunak, 300 lagun aurrean. Pep Palau, azokaren ardura-

dunaren esanetan, «bi sukaldarien emanaldia edizio honetako onenetarikoak izan da». Beraiekin batera, beste 65 zonaldeko sukaldari prestatu zituzten euren platerak.

### Hainbat datu

Santiagoko ferialekuak 5.000 metro kuadro dituen, 150 egile bildu ditu, 70 stand-etan banatuak. Mundu osoko produktuak izan dira ikusgai baita dastagai ere.

Tolosa Gourmeteko standean Tolosaldea Tour agentziako teknikariak aritu ziren artatze lanetan, baita turismo eta azoka sailko arduradunak ere. Bertatik igaro ziren, besteak beste, Kanpo Komertzio-ko institutuko ordezkariak,

gastronomian berezitako kazetariak eta sukaldaritzaren irakasleak. Hain zuzen ere, Kanariar Uhartetako sukaldaritzaren eskolako irakasleek interes handia erakutsi zuten Tolosako Gorrotxategi museoa ezagutzeko.

### Hitz gozako

#### Tolosa Gourmet-entzat

Stand-abisitatu zutenek hitz gozako izan zituzten Tolosako produktuentzat, xaxu entzat, zigarratxo entzat eta babarrunentzat, hain zuzen ere.

Bai Tolosarentzat bai Tolosaldearentzat ere «promozio ezin hobea» izan ziren produktu hauek guztiak.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Elitxu (Aduna).** Ez zara zahartzen. Horrela segi. Muxu bat lagun eta maite zaituztenen partetik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak